



Joannes Jauregi, literatura itzultzailea eta kritikaria

«Itzultzaile bikain ugari daude itzulpen-ikasketarik ez daukatenak»

Sherwood Anderson idazle estatubatuarren 'Winesburg, Ohio' ipuin bilduma euskaratu du. Lehenago itzulia zuen Yannis Ritsos-en poema antologia bat



Joannes Jauregi, bere lanarekin. Luis Michelena

Aiora Sampedro

Viernes, 7 de abril 2023 | Actualizado 11/04/2023 10:58h.

Comenta



1994an Astigarragan jaioetako itzultzailea da Joannes Jauregi. Kritika literarioan lanean hainbat urtez ibili zen Berria egunkarian, baina literaturari loturiko jardun nagusia itzulpengintzaren arloan eman du. Duela hilabete batzuk EIZIEk eta Eusko Jaurititzak elkarlanean euskarara Nazioarteko Literaturako Izenbururik esanguratsuenak ekartzea helburu duen Literatura Unibertsala ekimenaren barnean irabazitako sariaren ondoriz, Sherwood Andersonen 'Ohio' (Erein) liburua euskaratu zuelako izan genuen haren berri.

-Kritika literarioan ezagutu zaitugu. Itzultzaile izanik, saihestezina zen eremu literarioan saiatzea?

Ez dakit saihestezina zen. Uste dut hizkuntzen zaletasuna duenak literaturarako eta irakurketarako joera ere izaten duela. Non goza daiteke hizkuntzaaz literaturan baino gehiago? Nik neuk, behintzat, uste dut hizkuntzaazalea naizelako naizela literaturazalea, eta alderantziz. Nire literaturarako zaletasuna hizkuntzen arteko jolasekin lotua dago guztiz. Beste hizkuntza batean irakurritakoa norberarean nola eman, eta alderantziz, norberaren hizkuntzan irakurritakoa nola esan bestean... Baina beti irakurritakoa oinarri hartuta. Itzultzaile baino lehen, irakurle naiz, inongo zalantzarik gabe.

Zeren, gainera, literatura-itzultzailea irakurle pribilegiatua baita. Ez dago literatura-lan bat itzulpenaren bidez baino sakonago irakurterik, itzultzaileak berridatzi egin behar baitu. Idazlearen larrua jantzi, eta berak eman behar du, bere ahots propiotik (baina aldi berean sekula bere-berea izan ezin den ahots batetik) jatorrizko testuak kontatzen eta egiten duena. Fikzioa da, berez ezinezkoa, baina egin egiten da, azken finean itzultzailea irakurlea delako.

-Itzulpen ikasketak EHUKo Gasteizko ikastegian egin zenituen, baina bertan ez dago literatura itzulpengintzari buruzko espezializiorik. Nola ekin zenion esparru honetako prestakuntzari?

Ez daukat literatura-itzulpengintzako prestakuntza bereziturik, eta ez dut uste beharrezkoa denik ere; itzultzaile bikain ugari daude itzulpen-ikasketarik ere ez daukatenak. Itzulpenean, eskarmentuak eta jardunak formakuntza akademiko espezifikoak baino gehiago balio dute. Ez dut esan nahi ikasi beharrik ez dagoenik edo ikasketak alferrikakoak direnik, baina itzultzen arian-arian ikasten da, eguneroko zalanitzei eta hanka-sartzei esker.

Nik neuk literatura-ikasketak egiteko aukera izan nuen itzulpengintzako gradua bukatu ostean. Literaturen harra neukan oraindik, eta, itzulpengintzako gradua nahiko karrera teknikoa iruditzi zitzaidanez, literaturan eta teoriar gehixeago murgiltzea erabaki nuen, gehixeago irakurtzea eskatuko zidan zerbait egitea.

-Senez EIZIEko itzulpengintza aldizkariaren baitan jardun honi buruzko hainbat artikuluz plazaratu dituzu, sarri, poetika hausnarketak plazaratuz. Zein iruditzen zaizu itzulpengintza prosaisitikoaren eta literarioaren arteko alderik nagusiena?

Ez dakit desberdintasun hori ondo ulertzen dudan. Itzulpen-jardunari berari erreparatuta, itzulgai bakoitza diferentea da, testua literarioa izan ala ez; non dago, gainera, testu literarioaren eta ez-literarioaren arteko muga? Uste dut testu bakoitza mundu bat dela, eta halaxe itzultzen direla.

Bestalde, itzulpengintza literarioa diogunean merkatu editorialean liburu-forman argitaratzen denaz ari bagara, bada, esango nuke diferentzia nagusia zera dela: itzulpena ogibide duenak ezin duela 'literatura' bakarrik itzuli, eta gehientsuenetan bestelako testuek ematen diotela bizibidea. Horregatik diot ez dagoela muga garbinik itzulpen literarioaren eta bestelakoaren artean, itzultzaile literarioa eta ez-literarioa ere pertsona bera izaten baita sarri. Literatura euskaratzen dute itzultzaileak emankorrenek ere bestelako lanekin osatu behar duten beren ogibidea.

-Beste euskal literatura itzultzaileekin batera esparru hau indartzeko ekimen bateraturik prestaturik baduzue?

Ni parte naizela behintzat ez.

-Literatura Unibertsala silaren barnean Literatura Unibertsala sailaren itzulpen-lana gauzatzeko irabazitako lehiaketari esker, Sherwood Anderson idazlearen Winesburg, Ohio lana euskaratu duzu. Horrelako testu mardul batek aurretik itzuli dituzun poema-liburuen aldean, plangintza-lan berezia eskatzen du?

Ez nuke esango. Bi itzulpen horien arteko alde nagusia luzera da, nik uste, eta bata prosa izatea eta bestea poesia. Poesia itzulitzean, iruditzen zait buelta gehiago ematen zaizkiola denari: ni behintzat esaldi guztiak berridatzi eta berridatzi aritzen naiz, lerro etenean askoz ere garrantzitsuagoak baitira hizkuntzaren erritmoa, kadentzia eta musikaltasuna. Hitz egokia, formulazio doia eta molde zehatza aurkitzea da kontua, eta, gehienetan prosan baino testu laburragoak izaten direnez, poemek aukera ematen diote itzultzaileari askoz ere buelta gehiago emateko, bere obsesio-gaitasunaren arabera betiere.

Prosan, berriz, helburua gehiago da jario egoki bat aurkitzea, testuak behar bezala egin dezan aurrera, irakurleari enbarazu eta traba handirik jarri gabe. Hizkuntzaren erritmoak ere badu garrantzia, noski, eta prosalari bakoitzak bere ezaugarriak eta idiosinkrasiak ditu, baina uste dut jarioa oro har garrantzitsuagoa izan ohi dela musikaltasuna-eta baino.

Ez nuke esango poesia itzultzea eta prosa itzultzea jardura erabat desberdinak direnik, azken finean itzultzen ari baikara, jatorrizko testu bat beste hizkuntza batean berridatzen, alegia. Baina, poesia eta prosa desberdin irakurtzen diren bezala, idatzi (eta itzuli) ere desberdin egiten direla iruditzen zait.

-Artikulu horietako batean aipatzen zenuen euskaraz itzultzen ditugun egile unibertsalen kasuan dugun Arazorik nagusienetarikoa itzultzen diren obren kopuruan dela. Hedoi Etxarteren hitzak zeure eginez, egile bakoitzaren testu soila itzultzen dugula zenion, eta odnorioz, irakurleek ondoren erdaretara jo behar izaten dutela egile beraren testuak irakurtzen jarraitzeko. Zein litzateke hori saihesteko estrategia batek behar lukeen oinarria?

Politika editorialaz ezer gutxi dakit nik, eta ez nuke jakingo esaten ze soluzio izan dezakeen horrek, baina zuk aipatu duzuna gure literatura-sistema txikiarene gihar-faltaren ondorioetako bat da. Edozein liburu plazaratzek ahailegin itzela eskatzen die argitaletxei, eta, hori ikusita, uste dut aurretik euskaratu gabe dauden egileak itzultera jotzen dugula askotan, jada liburu bat edo bi euskaraz dituzten egileengana baino gehiago. Muga bat izango da akaso, baina horri esker jaso ditugu berriki W.G. Sebald eta Ursula K. Le Guin, esate baterako, bi idazle ikagarri eta euskaraz argitaratu gabeak zirenak.

Dena den, badira oparo euskaratutako egileak ere: Annie Emaux azken Nobel saridunaren lan dextente geneuzkan sariaren aurretik ere, eta Robert Louis Stevensonek eta Agatha Christie, adibidez, badituzte nobela dextente euskaratuta. Beste adibide biken bat, erdi ahaztua gainera, Marguerite Yourcenar da. Ikaragarri gustatzen zait, eta euskaraz dugu haren narratibaren parte handi bat: Erremateko tiroa, Ekialdeko Ipuinak, Alexis edo alferrikako guduari buruzkoa eta Hadrianoren memoriak. Azken bi horiek edizio nahiko zaharrak dira, Elkarrek 80ko hamarkadan argitaratuak.

Hor dago, baina zuzen, beste giltzarri bat: badira hainbat obra, tartean XX. mendeko idazle bikainen lanak (Heinrich Böll, John Le Carré, Mercé Rodoreda, Cesare Pavese...), edizio zaharretan ahaztutegi geratu direnak, eta gaur egun bigarren eskuko dendetan edo liburutegi gutxi batzuetan bakarrik eskura daitezkeenak. Literatura Unibertsala bildumaren lehen etapako gehienak ere (90eko hamarkadaokak), Urrezko Biblioteka bezalako egitasmoak gorabehera, halaxe geratu dira, eta benetan pena da, hor ere bai baititugu harbitxiti ugari: Knut Hamsunen Gosea, Yukio Mishimaren Arratsaldeko atontzia...

Beraz, kontua ez da bakarrik zer falta zaigun euskaratzeko, eta zer-nolako gabezia edo ezin ditugun gaur egun. Baina jada euskaratu eta argitaratu zena, hortxe daukaguna, mantendu, ezagutu, gaurkotu eta irakurtzeko ahalgunea ere egin beharko genukeela iruditzen zait, edo horretarako modua izan beharko genukeela behintzat. Transmisioa, edo, horretarako

-Adimen Artifizialak erehala itzultzaileak ordezkatuko dituztela entzuten dugu usu. Itzulpengintza literarioan incursión hori timidoagao izaten ari da. Artea izan daiteke eutsio dion azken reductoa?

Gure eremuan, adimen artifizialak baino gehiago kezkatzen naute itzultzaile automatikoei-eta. Argi dago jende arruntari bizitza errazten diotela eremu askotan, baina kontuan izan behar da itzultzaile profesional askori baldintzak okertu dizkietela nabarmen. Itzultzaile automatiko batek itzultitakoa berrikustea lan desatsegina eta astuna da ghorretan bat datoz ezagutzen ditudan giza itzultzaile guztiak, eta gehienontzat samurrago da hutsetik itzultea, nor bere giza ahotsa eta gaitasuna erabilita, gaitasun horiek makinaren akatsak bilatzera eta zuzentzera bideratuta baino. Desatseginagoa eta astunagoa ez ezik, merkeagoa ere bada jardun hori; alegia, okerrago ordaindua. Horregatik diot itzultzaile automatikoei baldintzak okertu dizkietela giza itzultzaile askori.

Literatura-itzulpenean, kosta egiten zait imajinatzea adimen artifizialak noizbait gizaki batek testu batean egin dezakeen guztia egin ahaliko duenik. Testu batean eman daitezkeen nabardura estilistikoak, konnotazio eta iradokitzapen soziokulturalak... Ez dakit. Uste dut adimen artifizial batek Joycean Ulises Xabier Olarrak bezain ondo itzul dezakeen egunean izango dugula bestelako kezka larriagorik ere.

-Etorkizunerako oraingoz prestatzen ari zara itzulpen-lanik?

Beti izaten da zerbait buruan, ezta?

Temas Euskal Literatura Euskera

Comenta

Reporta un error

Noticia patrocinada

Historias visuales

Ver más historias >

